



HAUTAKETA PROZESUAREN AKTA

2015eko urriaren 26ko 1264/2015 ebazpenaren bitartez alkateak erabaki zuen abian jartzea Pasaia Udalaren logotipo eta irudi korporatiboa hautatzeko lehiaketa, eta halaber prozesu hori kudeatuko duten arauak onartzea ere.

Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 209. zenbakian argitaratu zen, 2015/11/2an, eta baita Udalaren kontratatzailearen profilean ere.

Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren, 58 lan jaso ziren. Horietatik 6 ez ziren onartu, ez baitzituzten arauak betetzen (ez zuten memoriarik edo euskarri digitalik erantsi). Hauetako batek memoria bazuela egiaztatu ondoren, azkenean onartu egin zen.

Lan guztiak propio horretarako sortutako web-orri batean argitaratu ziren, egileek emandako izengoitiaren arabera alfabetikoki ordenaturik. Ondoren bozketarako epea zabaldu zen, otsailaren 8tik 21era.

Zazpigarren arauaren arabera lau epaimahai sortu ziren, eta haietako bakoitzak gehienez 250 puntu eman zitzaizkien.

Botoak jaso ahal izateko, aipatutako web-orrian bozkatzeko sistema bat martxan ipini zen.

Bozkatzeko epea amaitu ostean, eta jasotako botoak aztertuta, honako ekintzak burutu dira:

HERRITARREN MAHAIA

- Herritar bakoitzak hiru proposamen bozkatu behar zituen, 10, 5 eta 3 punturekin.
- Norbaitek boto bat baino gehiago eman badu, zaharrena ezabatu zaio.
- Herritar batek bere boto guztiak proposamen bakar bati eman badizkio, soilik 10 puntukoa onartu zaio.
- Pasaian erroldatuta ez daudenen botoak ezabatu egin dira.
- Moldaketa horien ondoren, guztira 243 boto onartu dira.

Mediante resolución de la Alcaldesa nº 1264/2015 de 26 de octubre de 2015, se acordó convocar un concurso para el logotipo e imagen corporativa del Ayuntamiento de Pasaia así como sus bases reguladoras.

La convocatoria fue publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 209 de 2/11/2015 y en el perfil del contratante del Ayuntamiento.

Finalizado el plazo para la presentación de propuestas, se recibieron un total de 58 trabajos, de los que 6 no fueron admitidos por no cumplir las bases de la convocatoria (no incluir memoria o no incluir soporte digital). Tras comprobar que uno de estos trabajos sí aportaba memoria, fue finalmente admitido.

Todos los trabajos fueron publicados en una página web diseñada al efecto, en orden alfabético según el seudónimo indicado por los autores, abriéndose un plazo de votación entre el 8 y el 21 de febrero.

De conformidad con la base séptima se constituyeron cuatro mesas de votación, pudiendo otorgar cada una un máximo de 250 puntos.

La propia página web donde se publicaron las propuestas disponía de un sistema de votación integrado.

Finalizado el plazo de votación y tras la recopilación de los resultados, se han realizado las siguientes acciones:

MESA DE CIUDADANOS/AS

- Cada votante debía valorar tres propuestas con 10, 5 y 3 puntos.
- Cuando un ciudadano/a ha emitido más de un voto, se ha eliminado el voto más antiguo.
- Cuando un ciudadano/a ha emitido todos sus votos a una única candidatura, sólo se ha admitido la valoración de 10 puntos.
- Se han eliminado todos los votos de las personas no empadronadas en Pasaia.
- Como resultado final, se han admitido un total de 243 votos válidos.

ELKARTEEN MAHAIA

- Elkarte bakoitzak hiru proposamen bozkatu behar zituen, 50, 25 eta 15 punturekin.
- Elkarte batek birritan bozkatu du, eta boto zaharrena ezabatu egin da.
- Elkarteetatik inork ere ez dizkio bere boto guztiak proposamen bakar bati eman.
- Guztira 19 boto onartu dira.

MERKATARIEN MAHAIA

- Merkatariek hiru proposamen aukeratu behar zituzten, 30, 15 eta 7 punturekin.
- Hiru merkatarik birritan bozkatu dute; boto zaharrenak ezabatu zaizkie.
- Inork ez dizkio bere boto guztiak proposamen bakar bati eman.
- Guztira 16 boto onartu dira.

ORDEZKARI POLITIKOEN MAHAIA

- Udalbatzan ordezkaritza duten taldeek 3, 2 eta puntu 1ekin baloratu behar zituzten proposamenak.
- 3 taldek bozkatu dute, eta beste batek ez du botorik eman.

Zenbaketa guztia amaitu ostean, 250 punturen arabera haztatu dira, ondorengo hiruko erregela sinplea erabiliz:

$\text{Puntuak} = \text{Jasotako botoak} * 250 / \text{Boto guztiak}$

Ondorengo taulan hautatze prozesuaren emaitzak xehatzen dira:

MESA DE ASOCIACIONES

- Cada asociación debía valorar tres propuestas con 50, 25 y 15 puntos.
- Se ha eliminado el voto más antiguo de una asociación que ha votado dos veces.
- No ha habido casos en los que se hayan otorgado todos los votos a una única propuesta.
- Se han admitido un total de 19 votos.

MESA DE COMERCIANTES

- Cada comercio debía valorar tres propuestas con 30, 15 y 7 puntos.
- Se ha eliminado el voto más antiguo de tres comercios que han votado dos veces.
- No ha habido casos en los que se hayan otorgado todos los votos a una única propuesta.
- Se han admitido un total de 16 votos.

MESA DE REPRESENTANTES POLÍTICOS

- Cada grupo con representación en el Pleno podía valorar las propuestas con 3, 2 y 1 punto.
- 3 grupos han votado y 1 grupo ha decidido abstenerse.

Finalizado el recuento se ha procedido a su ponderación sobre 250 puntos, aplicando la siguiente regla de tres simple:

$\text{Puntos} = \text{Votos recibidos} * 250 / \text{Total de votos emitidos}$

En la tabla adjunta se detalla el resultado final del proceso de selección:

LANA	Politikariak	Herritarrak	Merkatariak	Elkartek	GUZTIRA
1 - 102806		3,42	11,33		14,74
2 - 4 barruti		10,72		11,28	22,01
3 - 4 distritos (A)					
4 - 4 distritos (B)					
5 - Abelix		4,64		4,34	8,99
6 - Arraun-pe		4,30		4,34	8,64
7 - Badia		3,07	2,64		5,72
8 - Batelari		32,38	8,31	22,57	63,25
9 - BOLTON (A)					
10 - BOLTON (B)					



HAUTAKETA PROZESUAREN AKTA

11 - Canto de sirena		2,73	5,66		8,40
12 - Chinorris (A)					
13 - Chinorris (B)					
14 - Denok Bat		4,58		11,28	15,86
15 - Estrobo 4	41,67	8,13		13,02	62,82
16 - Euria		13,05	2,64	4,34	20,03
17 - F5 (A)					
18 - F5 (B)					
19 - Hijolmatius (A)					
20 - Hijolmatius (B)					
21 - Itsas atea	69,44	27,25	13,97	73,78	184,46
22 - Jaizkibel (A)	41,67				41,67
23 - Jaizkibel (B)					
24 - KIRIKIÑO		2,25			2,25
25 - Kondairen eta arraunen artetik		8,20	2,64	4,34	15,18
26 - KOXKA		0,82	5,66		6,48
27 - Kukua		1,43	2,64		4,08
28 - LAFAYETTE-8		4,64	5,66	11,28	21,59
29 - Lau		2,25	19,64	15,63	37,52
30 - Lau Etxe, Herri bat					
31 - LAURAK BAT		4,78	5,66		10,45
32 - Laurok bat		1,64			1,64
33 - Luma		16,19	28,32	15,63	60,14
34 - Montag#1	41,67	11,61			53,28
35 - MUZZY (A)					
36 - MUZZY (B)					
37 - PASAGES		3,35	2,64		5,99
38 - PASAIA DESING (A)					
39 - PASAIA DESING (B)					
40 - Pasaiaiko Plazatik		9,97	19,64	11,28	40,89
41 - PORTU (I)					
42 - PORTU (II)					
43 - PSEUDONIMO PAISATIVO	27,78	3,14	25,30	4,34	60,56
44 - REMO (A)					
45 - REMO (B)					
46 - Sarrera, irteera, Hiria					
47 - Tom Hennley		3,62	2,64		6,26
48 - Un mar de colores	27,78	6,90		11,28	45,96
49 - UNETBE		1,43			1,43
50 - Ur tanta		6,76	5,66		12,43
51 - VICENZA (A)					
52 - VICENZA (B)					
53-Lamianlau		46,72	79,31	31,25	157,28
GUZTIRA	250	250	250	250	1000

Behin prozesua amaituta, "Itsas atea" goitzenarekin aurkeztutako 21. proposamenak jaso ditu puntu gehien.

Egilearen nortasuna gordetzen duen gutun-azala zabaldu da: IRARKI arkitektura estudioa izan da garailea. Estudio hau Blanca Pita Martinek eta Eñaut Legarda Maconek osatzen dute.

Deialdiaren bosgarren arauaren arabera, lehiaketaren irabazleak bi hilabeteko epean eskuliburuaren eta udal irudi korporatiboaren gainerako elementuen garapen osoa egin beharko du, oinarri gisa lehiaketan aurkeztutako oinarrizko eskuliburua harturik. Irudi korporatiboaren garapenak barne hartu beharko ditu honako alderdi hauek: logotipo berriaren azalpena, begizko identitatearen oinarrizko elementuak (logoaren tipografia, koloreak, tamainak), proposamena aplikatzea paper-gauza, prentsa idatzi, publizitate eta sustapen-elementuei, web eta elkarreraginezko, multimedia, seinalizazioa eta aplikazio bereziei.

Era berean, zazpigarren arauaren arabera udalak aukera izango du diseinu irabazlearen egileari nahi adina egokitze edo aldaketak proposatzeko, arrazoi tekniko edo estetikoengatik, praktikoki egiteko edo beste edozein motatakoak.

Akta honen edukia kontuan harturik, alkateak dagokion ebazpena emango du lehiaketa nork irabazi duen aditzera emanez, eta hura epaimahaiak egindako proposamenarekin bat ez badator, arrazoiak agertu beharko dira ebazpenean.

Finalizado el proceso, la propuesta con mayor número de puntos es la correspondiente al nº 21, presentada bajo el seudónimo "Itsas atea".

Se ha procedido a abrir el sobre con la identificación del autor, que ha resultado ser el estudio de arquitectura IRARKI, formado por Blanca Pita Martín y Eñaut Legarda Macón.

De conformidad con la base quinta de la convocatoria, el/la ganador/a del concurso deberá realizar, en el plazo máximo de dos meses, el desarrollo completo del manual y resto de elementos de la imagen corporativa municipal, tomando como punto de partida el manual básico presentado en el concurso. Este desarrollo de la imagen corporativa debe contemplar aspectos como la explicación del nuevo logotipo, elementos base de la identidad visual (tipografía del logo, colores, tamaños), la aplicación a los distintos elementos de papelería, prensa escrita, publicidad y elementos promocionales, web e interactivos, multimedia, señalización y otras aplicaciones especiales.

Asimismo, según la base séptima se podrá proponer al autor/a del diseño ganador cuantas adaptaciones o modificaciones se consideren necesarias, por motivos técnicos o estéticos, de implantación práctica o de cualquier otra índole.

A la vista de la presente Acta, la alcaldesa procederá a dictar la correspondiente resolución, decidiendo el o la ganadora del concurso, resolución que deberá ser motivada si no se ajusta a la presente propuesta.

Pasaian, 2016ko otsailaren 26an